



DANI BLANCO

Oier Araolaza

DANTZARIA ♦

Etnokoreologia

“ERABAKI DUZU zer ikasiko duzun?”. Plasta. Horrela etortzen dira galdera traszendentalenak, abisu eta beroketa gabe. “Eeeee... baaaaaa... zeeeeeraaaaa... niiiiiniik...”. Bekokian deskubritu berri duzun pikorta ispiluan ikusi eta berrikusi, eta hil ala biziko egoera hartan, institutura ezin zarela joan esplikatzeko zailtasunak gutxi ez, eta gainera, bizitzako bigarren erabaki garrantzitsuena hartu behar duzula gogorazten dizute. Oscar Matzerathekin akordatzen nintzen ni horrelakoetan. Ume-moko zela bere burua eskailaretan behera bota eta hazteari utzi zion Oscarrek. Hark bai jakin!

Nik handitan zer izan nahi nuen jakin nuenerako hogeita hamar urte paseak nituen. Aurretik ezinezkoa zitzaidan nire bokazioa identifikatzea, munduan ofizio hori zenik ere ez bainekien. Halako batean izen arraroko lanbide baten berri izan nuen eta berehala ulertu nuen horixe zela nire ametsetako lanbidea. Poza eta pena, biak batera eragin zizkidan aurkikuntzak. Bokazioa deskubritu izanaren poza, niretzat berandu ote zen sentipenarekin zapuzten zen. Handitan zer izan nahi nuen jakin nuenerako, inork ez zidan horri buruz galdetzen.

Nik handitan zer izan nahi nuen jakin nuenerako hogeita hamar urte paseak nituen. Aurretik ezinezkoa zitzaidan nire bokazioa identifikatzea, munduan ofizio hori zenik ere ez bainekien

Datorren urtarrilaren 17an Jean Michel Guilcher etnokoreologo handia omenduko dugu Donostian. Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko dantzei buruzko ikerketa sakon eta sistematikoak egin ditu, eta horiek ezagutzeko iturri agortezina da bere lana. Bretoia da bera eta Frantziako Estatuko dantza tradizionalak izan ditu ikergai bere bizitza luze bezain

oparoan. Hogeita hamar urtetik gora zituen Guilcherrek dantzaren ikerketan buru-belarri sartu zenean. Bizitza luzea eta oparoa, bai horixe, 1914ko irailaren 24an jaiotzen baitzen, eta ehun urte bete ditu aurtengo irailean. Mende bat bizkarrean eta lanean segitzeko adorea du oraindik Jean Michel Guilcherrek, seme-alaben laguntzarekin bere etnokoreologia lanak zuzendu eta osatzen jarraitzen omen du.

Etnokoreologia. Horixe da handitan izan nahiko nukeena. Dantza iker-tzaileak dira etnokoreologoak, dantza antropologiatik ikertzen dutenak. Etnokoreologoak ezagutu ditugu bakar batzuk inguruotan, izen

hori baliatzen ez bazuten ere. Dozena urte pasa da etnokoreologiaren berri izan nuenetik, eta oraintsu hasi naiz pentsatzen akaso oraindik garaiz nabilela. ■



DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Gogoratu eta eskatu

AURREKOAN elkarrizketa batean galdetu zidaten zer azpimarratuko nuen, jada bukatutzat eman dugun 2014az. Automatikoki, ondo akordatu gabe ere, zerrendatu nizkion aurtengo mugarri politikoak.

Baina amaitzeaz bat ohartu nintzen ez niola hori erantzun nahi. Esan nahi niola aurten negar asko egin dudala. Beste edozein urtetan baino gehiago. Ez dela dena izan tristeziak ez, izugarritzko hauspotzeak ere izan ditudala, eta bai, barre ere inoiz ez bezala egin dudala. Nahiko hippya izan naitzela eta besozabal hartu dudala maitatzeko prest ezagutu dudana jende izugarri hori guztia. Sartu zaizkidalda zainetaraino uste ez

nituen ideiak eta aldarriak, eta beste batzuk, esperoan, kajoian utzi ditudala.

Erronka berriak izan ditudala eta gustura burutu ditudala. Jada nahikoa ez banintzen, are praktikoago bilakatu naitzela emozionalki, eta agian gehitxo, baina landu ditudala mila korapilo.

Baina sentibera positibista emozionalak izateko tarterik ez dugu kasik, beraz, hurrengo urteari krisiaren amaiera, aktibazio soziala, mugimendu feministaren goratzea eta epaiketa politikoen amaiera eskatuko diot; edonork ezer esan aurretik. ■

